

Urretxu, 2015ko urriaren 20a

Guraso agurgarriok:

Idatzi honen bidez jakinarazi nahi **dizuegu datorren asteartean, urriak 27 arratsaldeko 18:30etan, DBHko eta Batxilergoko guraso-tutore bilera** izango dugula Joxe Mari Iparragirre B.H.I-an.

Bilera honetan ikasturteko antolaketa eta talde bakoitzari dagozkion gai orokorrak landuko dira, hau dela eta, egokia iruditzen zaigu zuek bertara etortzea.

Bertara etorri ahal izateko autobus zerbitzua izango duzue, Zumarragako Elizaren eta Urretxuko Euskadiko Kutzaren ondoan, 18:15etan.

Besterik gabe, adeitasunez agurtzen zaituzte.

Zuzendaritza